



Osakidetza
Servicio vasco de salud

Hospital
Donostia
Ospitalea

Zure umea ipurdiz al dator?



Jaio aurretik haur gehienek buruz beherako jarrera hartzen dute, hau da, umetokiaren barruan buruz behera jartzen dira. Haurrak ipurdia eta oinak edo biak erditze-kanalera begira dituenean esan ohi dugu haurra ipurdiz datorrela.

Zuri hori gertatzen bazaizu, egoera hobeto ezagutzea oso ondo etorriko zaizu haurdunaldia ondo amaitzeko biderik egokiena aztertzeko zure ginekologoarekin batera.

Liburuxka honek ematen dizkizun argibideak:

- Nola jakin haurra ipurdiz datorren ala ez.
- Zergatik gertatzen den hori.
- Zer egin dezakezun erditu aurretik.

Ipurdiz datozen ume gehienek osasun ona izaten dute jaiotzean. Zure haurra ipurdiz badator, hitz egin zure ginekologoarekin erditzea prestatzeko.

Haurra ipurdiz datorrenean

Haurdunaldiak batez beste 40 aste irauten du, azken hilekoaren lehenengo egunetik kontatzen hasita. Haurdunaldiaren aurreneko 36 asteetan haurrak askotan aldatzen du umetokiaren barruan duen kokalekua. Azkeneko asteetan ez da hain normala kokalekuz aldatzea, mugitzeko leku gutxiago duelako.

Erditzeko espero den eguna baino 3-4 aste lehenago, haur gehienak buruz behera jartzen dira erditze-kanalera zuzenduta. Hori egin ezean, gerta daiteke haurraren ipurdia, oinak edo biak erditze-kanalera zuzenduta gelditzea. Kasu horretan haurra ipurdiz datorrela esaten dugu.

Amaileraraino iristen diren haurdunaldien %3-4 inguruan gertatzen da hori. Ipurdiz datozen haur gehienak osasuntsu jaiotzen dira, baina buruz behera jaiotzen direnek baino arrisku gehiago izan dezakete zenbait kasutan.

Arrazoiak

Ez dakigu garbi zergatik jartzen den haurra ipurdiz beherako jarrera horretan. Hori maizago gertatzen da kasu hauetan:

- Emakumeak haurdunaldi bat baino gehiago izan duenean.
- Haurdunaldi anizkoitza denean.
- Likido amniotikoa (umetokiaren barruan haurra inguratzen duen likido) oso ugaria edo oso urria denean.
- Umetokiak forma erregularrik ez duenean edo miomak/fibromak dituenean.
- **Karenak** umetokiaren irteeraren zati bat edo irteera osoa estaltzen duenean (alde zurreko karena).
- Haurra **garaiz aurrekoa denean (37. astea baino lehenagokoa)**.

Ipurdiz datozen haurrek arazo gehixeago izan dezakete jaiotzerakoan, besteak beste, garun-perlesia izateko arriskua dute. Oso kasu bitxietan jaiotzean anomaliaren bat izatea nahiko arrazoi izan daiteke haurrak erditzeko jarrera egokiago bat ez hartzeko.

Haurra zein jarreratan dagoen jakitea

Ginekologoak, amaren sabela miatuz, ondo jakin dezake haurraren burua, sorbalda eta ipurdia non dauden. Haurrak haurdunaldia amaitu arte jarrera alda dezakeenez, zure medikuak ezingo dizu seguru esan erditzeko eguna iritsi arte jarrera horretan bertan geratuko den ala ez.

Haurraren jarrera egiaztatzeko **Ekografia** bat egin daiteke.

Ipurdiz datorren haurraren jarrera aldatu daiteke?

Zure ginekologoak haurra jirarazteko proposatu diezazuke, buruz behera geldi dadin. Ekintza horri **Jiraraztea** esaten zaio, eta horren bidez zuk baginatik erditzeko aukera gehiago izatea lortu nahi da. Gutxienez haurdunaldiaren 36. astean zaudenean egingo lizukete jirarazte hori.

Medikuak haurra jirarazi aurretik, ekografia bat egingo zaizu. Horri esker, medikuak honako argitasunak jasoko ditu:

- Haurraren egoera eta jarrera.
- Karenaren kokalekua.
- Umetokian zenbat likido amniotiko dagoen.

Haurra jiraraziz, buruz aurrerako jarreran jar daiteke (buruz behera). Hori lortzeko, medikuak eskuak sabelaren toki jakin batzuetan jarri eta haurra buruz behera jartzeko beharrezko mugimenduak egingo ditu. Batzuetan, botikaren bat ematen zaio emakumeari umetokia laxatzen laguntzeko. Jirarazte hori egin aurretik eta ondoren, fetuaren taupadak neurtuko dira. Zurekin edo haurrarekin arazoren bat izanez gero, maniobra eten egingo da. Haurra jirarazteko saio guztien erdia baino gehiago ondo ateratzen da. Nolanahi ere, jirarazi ondoren haur batzuek jarrera aldatu egingo dute. Kasu horretan, zure medikua haurra berriro jirarazten saia daiteke. Erditzeko eguna hurbildu ahala, gero eta zailagoa izango haurra jiraraztea.

Haurra jiraraztean normalean oso arazo gutxi sortzen bada ere, arrisku hauek daude:

- **Ur-zorroa haustea**
- Bihotzeko erritmoa aldatzea
- Erditzeko lana hastea
- **Karena askatzea**

Haurra jiraraztea desegokia izan daiteke emakume batzuentzat, eta arriskuak sor ditzake. Hitz egin zure medikuarekin zuretzat egokia den jakiteko.



Erditzea

Ipurdiz datorren haurraz erditzea buruz behera datorrenaz erditzea baino zailagoa da. 2000. urtean Hannah-en eta kol. azterketa argitaratu zen eta bertan zesarea egitea gomendatzen zuten, haurra ipurdiz etorri, fetu bakarra izan eta haurdunaldi bete egonez gero. Geroztik, ospitale askotan kontuan hartu dute aholku hori. Hala ere, gaur egun, Hannah-en saioa eta bere ondorioak zalantzan jartzeko argudio sendo batzuk ere badira. Espainiako Ginekologia eta Obstetria Elkartearen ustez baginatik erditzeko aukera ere aintzat hartzekoa da, baldintza jakin batzuk betetzen badira. Halaber, Osakidetza profesional adituek adostutako eta eginiko dokumentuak bagina-bidea segurua dela ezartzen du, baldin eta jasotako irizpideak betetzen badira. Zure ginekologoak informazio gehiago eskainiko dizu.

Zesareak, egintza kirurgikoa denez, baditu arrisku batzuk. Arriskuen artean aipa daitezke:

- Infekzioa
- Hemorragia garrantzitsua
- Mina

Ipurdiz datozen hurrek zailtasun handiagoak izaten dituzte erditzeko garaian, baita zesarea egiten denean ere. Gainera, zesareak ez ditu arazo guztiak konpontzen; ipurdiz datorren haurrak izan ditzakeen sortzetiko akats batzuk esaterako. Erditzea oso aurreratua baldin badago eta berehala gertatu behar badu, edo emakumeak bikiak baditu, beharbada ez da posible izango zesarea proposatzea ipurdiz datorren haurrarentzat.

Emakume batzuentzat zesarea aukerarik egokiena izan daiteke.



Azkenean...

Ipurdiz datozen haur gehienak osasuntsu jaiotzen dira. Erditzeko eguna hurbildu eta zure haurra oraindik ipurdiz jaiotzeko eran badago, hitz egin zure medikuarekin haurdunaldia amaitzeko moduaz.

GLOSARIOA:

Haurra ipurdiz etortzea

Jarrera horretan dagoenean fetuak ipurdia edo oinak behealdera, erditze-kanalera zuzenduta izatea.

Zesarea

Amaren sabelaldean ebaki bat egitea haurra jaiotzeko.

Karena

Fetuari elikagaia eman eta haren hondakinak jasotzen dituen mintza da.

Karena askatzea

Karena umetoki-paretatik askatzea.

Garaiz aurrekoa

Haurdunaldiko 37 aste bete baino lehen erditzea.

Ur-zorroa haustea

Mintzak urratu eta likido amniotikoa galtzea.

Ekografia

Gorputzaren barreneko egiturak aztertzeko uhin akustikoak erabiltzen dituen proba. Haurdunaldian fetua aztertzeko erabil daiteke.

Umetokia

Emakumearen pelbisean dagoen organoa. Haurdunaldian fetua bere barruan hartu eta elikatu egiten du.

Jiraraztea (Haurra Kanpotik Jiraraztea)

Teknika hau haurdunaldian erabiltzen da eta beraren bidez medikuak haurra eskuz mugitzen du buruz behera jar dadin.

Liburuxka honetan emandako informazioak ez du esan nahi tratamendu bakarra dagoenik ezta bestelako tratamenduak baztertu behar direnik ere.